

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA IZAERA, HELBURUAK ETA EZAUGARRIAK

1. artikulua.- Arauketa.
2. artikulua.-Elkartearen helburua.
3. artikulua.-Helburuak eta jarduerak.
4. artikulua.-Eremu geografikoa.
5. artikulua.-Nortasun juridikoa eta gaitasuna.
6. artikulua.-Helbidea.
7. artikulua.-Indarraldia.

II. KAPITULUA BAZKIDEAK

8. artikulua.-Nolakotasuna eta zerrendaketa.
9. artikulua.-Ohorezko bazkideak.
10. artikulua.-Bazkide arruntak, pertsona fisikoak.
11. artikulua.-Bazkide arruntak, pertsona juridikoak.
12. artikulua.-Babesleak eta laguntzaileak.
13. artikulua.-Eskubideak.
14. artikulua.-Betebeharrak.
15. artikulua.-Kuotak.
16. artikulua.-Zehapen arregimena.

Nahi izanez gero, honako esteka bidez dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <https://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T41ZW-44PM en la sede electronica <https://euskadi.eus/localizador>



III. KAPITULUA GOBERNU-ORGANOAK

17. artikulua.-Zerrendaketa.

Lehenengo atala.-Batzar nagusia.

18. artikulua.-Ezaugarriak.

19. artikulua.-Bilera:modalitateak.

20. artikulua.-Deialdia.

21. artikulua.-Bertaratzea.

22. artikulua.-Funtzionamendua.

23. artikulua.-Akordioak.

24. artikulua.-Akta.

25. artikulua.-Ohiko Batzar Nagusiaren eskumenak eta ahalmenak.

26. artikulua.-Ezohiko Batzar Nagusiaren eskumenak eta ahalmenak.

Bigarren atala.-Gobernu Kontseilua.

27. artikulua.-Ezaugarriak.

28. artikulua.-Osaera.

29. artikulua.-Hautaketa.

30. artikulua.-Kargua uztea.

31. artikulua.-Kooptazioa

32. artikulua.-Bilera.

33. artikulua.-Deialdia.

34. artikulua.-Bertaratzea.



ASOCIACIÓN DEL PAÍS VASCO PARA LA UNESCO
UNESCO SUSTATZEKO EUSKAL HERRIKO ELKARTEA

35. artikulua.-Funtzionamendua.

36. artikulua.-Akordioak.

37. artikulua.-Akta.

38. artikulua.-Eskumenak eta ahalmenak.

Hirugarren atala.-Gobernu Kontseiluko eta beste organo batzuetako karguak.

39. artikulua.-Eskuordeko Batzordea.

40. artikulua.- Lehendakaria eta Lehendakariordea.

41. artikulua.- Idazkaria eta Idazkariordea.

42. artikulua.- Diruzaina eta Diruzainordea.

43. artikulua.-Kontseilukideak.

44. artikulua.-Zuzendaritza.

IV. KAPITULUA

GIZARTE-ONDAREA ETA ARAUBIDE EKONOMIKOA

45. artikulua.-Ondare garbia.

46. artikulua.-Ondarea eta baliabide ekonomikoak.

47. artikulua.-Elkarte- eta ekonomia-ekitaldia.

48. artikulua.-Ondasunen eta baliabide ekonomikoen jomuga.

49. artikulua.-Aurrekontua eta kontuak.



V. KAPITULUA **ELKARTEA DESEGITEA ETA GIZARTE-ONDAREA APLIKATZEA**

50. artikulua.-Desegiteko arrazoiak.

51. artikulua.-Likidazio-prozesua.

VI. KAPITULUA **ESTATUTUAK ALDATZEA**

52. artikulua.-Aldatzeko ekimena eta proiektua.

53. artikulua.-Gobernu Kontseiluak izapidetzea.

54. artikulua.-Batzar Nagusiak onestea.

I. KAPITULUA

IZAERA, HELBURUAK ETA EZAUGARRIAK

1. artikulua.- Arauketa.

1.- UN Etxea- Asociación del País Vasco para la UNESCO, elkarteak AS/B/02748/1991 erregistro-zenbakia dauka, eta 1991ko uztailaren 3an eman zuen izena erregistroan. Bada, elkartearen estatutuak egokituta daude, Elkartei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legeak agintzen duenaren arabera

2.- UN Etxea- Asociación del País Vasco para la UNESCO irabazteko asmorik gabeko Elkarte da, eta ondorengoak bete beharko ditu: gorago aipatutako elkartearen legeak dioena, estatutu hauek diotena (betiere legeak dioenarekin kontraesanik sortzen ez den artean), elkarteko Gobernu-organismoek behar bezala hartutako erabakiak (legeak eta estatutuek diotenaz bat), eta Eusko Jauriaritzak onartutako erregelamenduzko xedapenak, baina azken horiek ordezkioak baino ez dira izango.

2. artikulua.-Elkartearen helburua.

Elkartearen helburua da UNESCOren eratze-agindua –pertsonek bera eta pertsonaren duintasuna nahiz balio gorenaren oinarritzat hartuta bake bidezkoa eta duina eraiki behar dela dioena– partekatzea. Eta horretarako, elkarteak, UNESCOren eta NBERen sozietate zibil gisa, euskal elkarte solidario bihurtu da, nazioartean jardungo du, eta NBERen eta, bereziki, UNESCOren programa eta balioen euskal eremuan erreferente izan nahi du, bereziki garapen jasagarria eta giza eskubideak, hezkuntzatik, zientziazatik eta kulturatik abiatuta tokiko eta nazioarteko eragileen arteko lankidetzak bultzatuz.

3. artikulua.-Helburuak eta jarduerak.

1.- UN Etxea- Asociación del País Vasco para la UNESCO, Nazio Batuen eta UNESCOren printzipioekin konprometituta dauden pertsonen eta erakundearen elkarte bat da, euskal gizarteak giza eskubideen balioak bere egin ditzan banakako eta taldeko jarrerak sortzeko helburuarekin, herrien garapen jasagarriaren erronka globalean parte hartuz.

2.-Bere helburua betetzeko, Elkarteak erakundearen plan estrategikoetan identifikatutako lehentasunak garatzen dituzten jarduerak aurrera eramango ditu.

Hurrengoak sustatuz:

- a) Herritarrak aktibatzen dituzten ekimenak, giza eskubideen eta garapen iraunkorren balioak barneratzeko.
- b) Aliantza eraldatzaileak eragile sozial, publiko eta pribatuekin, bai eta tokiko zein nazioarteko erakundeekin ere, giza garapen iraunkorra eta giza eskubideak sustatzeko.
- c) Garapenerako lankidetzak proiektuak egitea.

d) Genero berdintasuna sustatzen duten ekintzak erakunde-eremu guztietan eta euskal gizartean zein nazioartean.

Honen bidez:

- a) Prestakuntza-programak, mintegiak, jardunaldiak, foroak eta ikerketa- eta beka-programak eginez.
- b) Dokumentazio zentroen programa propioen bidez, ikus-entzunezko jarduerak, zinematografikoak, erakusketak.

3.-Aurreko puntuetako horiek guztiak lortu ahal izateko, elkarteak itunak egingo ditu eta lankidetzan jardungo du edozein pertsona edo erakunde publiko edo pribaturekin, horien helburua elkartearekin bat baldin badator.

4. artikulua.-Eremu geografikoa.

Elkartearen eremu geografikoa, batez ere, Euskal Herria izango da, baina garapen iraunkorra eta giza eskubideak sustatzeko lan egiten duten estatuko eta nazioarteko eragileekin lankidetzan eta aliantzak garatzeko ikuspegi argia du.

5. artikulua.-Nortasun juridikoa eta gaitasuna.

1.-Elkarteak nortasun juridiko independentea eta ondare propioa ditu, eta erabateko gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna.

2.-Ondorioz, era guztietako higiezinak eta eskubideak eskuratu, gorde, eduki, erabili, edozein bide erabilita besterendu eta grabatu ahal izango ditu, era guztietako jarduera eta kontratuak burutu, eta auzibidera jo ahal izango du, epaitegi, auzitegi eta erakunde publiko zein pribatuetan era guztietako ekintzak eta salbuespenak aurrera eramanda, beti ere araubide juridikoan xedatutakoa beterik.

6. artikulua.-Helbidea.

Elkartearen helbidea ondorengoa izango da: Isozaki Atea, Bizikidetasun plaza, Uribitarte pasealekua 12, 2. lokala, 48001 Bilbao.

7. artikulua.-Indarraldia.

1.- Elkarteira iraunkorra izateko eratu da.

2.- Bakarrik desegingo da Ezohiko Batzar Nagusiak hala erabakitzen badu edo legeetan aurreikusitako arazoiren bat ematen bada.

II. KAPITULUA BAZKIDEAK

8. artikulua.-Nolakotasuna eta zerrendaketa.

- 1.- Elkartearen alta emateko baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoak, publikoak eta pribatuak, izan daitezke bazkide.
- 2.- Bazkideek osatzen dute Elkartearen masa.
- 3.- Bazkide-mota hauek daude:
 - a) Ohorezko bazkideak.
 - b) Bazkide arruntak.
 - c) Babesleak.
 - d) Laguntzaileak.

9. artikulua.-Ohorezko bazkideak.

- 1.- Estatutu hauen arabera izendatzen diren pertsonak dira ohorezko bazkideak, Elkarteak izendatutako pertsonarengan ikusi dituen dohainak, merezimenduak, inguruabarrak eta balioak kontuan hartuta.
- 2.-Alta ematea Gobernu Kontseiluari dagokio, edozein kidek proposatuta, eta hurrengo bileran Batzar Nagusiari jakinaraziko dio.
- 3.-Bazkideen bajak honako arrazoi hauengatik gertatu ahal izango dira:
 - a) Pertsona fisikoen heriotza edo pertsona juridikoak desegitea.
 - b) Borondatez kanporatzea Gobernu Kontseiluari zuzendutako idazki baten bidez, idazki hori aurkezten den egunetik aurrerako ondorioekin, pertsona juridikoaren organo eskudunaren erabakia egiaztatzen duen agiriarekin batera, baja-borondatea jasotzen duena.
 - c) Gobernu Kontseiluaren aukerako erabakia.
- 4.-Gobernu Kontseiluak baja emateko baldintzak bete direla egiaztatuko du, eta hurrengo bileran Batzar Nagusiari jakinaraziko dio.
- 5.- Ohorezko bazkideek ez dituzte bazkide arrunten eskubideak eta betebeharrak izango, baizik eta izendapena justifikatzen duen ohorezkotzat jotzeko dagozkionak bakarrik, hala nola ekitaldietara joatea edo hitzaldiak

ematea, orokorrean edo kasu zehatz bakoitzerako Gobernu Kontseiluak edo lehendakariak erabakitakoaren arabera.

10. artikulua.-Bazkide arruntak, pertsona fisikoak.

1.-Bazkide arruntak izateko, pertsona fisikoek adinez nagusiak izan behar dute, ez dute legezko inolako baldintzarik bete behar beren eskubidea egikaritzeko, eta ez dute gaitasuna mugatuta izan behar ebazpen judizial irmoaren bidez.

2.-Alta ematea Batzar Nagusiari dagokio, kideen bi herenen aldeko botoarekin, Gobernu Kontseiluak proposatu ondoren.

3.-Bazkideen bajak honako arrazoi hauengatik gertatu ahal izango dira:

a) Heriotza.

b) Borondatez kanporatzea, Gobernu Kontseiluari zuzendutako idazki baten bidez, idazki hori aurkezten den egunetik aurrerako ondorioekin.

c) Behin betiko kanporatzeko zehapena, 16. artikuluaaren arabera erabakita.

4.-Gobernu Kontseiluak baja emateko baldintzak bete direla egiaztatuko du, eta hurrengo bileran Batzar Nagusiari jakinaraziko dio.

11. artikulua.-Bazkide arruntak, pertsona juridikoak.

1.-Bazkide arruntak izateko, pertsona juridikoek idatziz eskatuko diote Gobernu Kontseiluari, honako agiri hauekin batera:

a) Erakundea arautzen duten estatutuen kopia, dagokion erregistroan behar bezala inskribatuta.

b) Pertsona juridikoaren organo eskudunaren erabakia egiaztatzen duen agiria, elkartearen kide egiteko, estatutuak betetzeko borondatea eta ordezkariaren izendapena jasotzen dituen.

2.- Dokumentazio hori bete ostean, alta estatutu hauen 10-2 artikulua arautuko du.

3.-Bazkideen bajak honako arrazoi hauengatik gertatu ahal izango dira:

a) Desegitea.

b) Borondatez kanporatzea, Gobernu Kontseiluari zuzendutako idazki baten bidez, idazki hori aurkezten den egunetik aurrerako ondorioekin, pertsona juridikoaren organo eskudunaren erabakia egiaztatzen duen agiriarekin batera, baja-borondatea jasotzen duena.

c) Behin betiko kanporatzeko zehapena, 16. artikuluaaren arabera erabakia.

4.-Gobernu Kontseiluak baja emateko baldintzak bete direla egiaztatuko du, eta hurrengo bileran Batzar Nagusiari jakinaraziko dio.



ASOCIACIÓN DEL PAÍS VASCO PARA LA UNESCO
UNESCO SUSTATZEKO EUSKAL HERRIKO ELKARTEA

12. artikulua.-Babesleak eta laguntzaileak.

- 1.-Estatutu hauen arabera izendatzen diren pertsonak dira babesleak, batez ere Elkarteari ekarpen ekonomikoak egiten dizkiotelako.
- 2.-Estatutu hauen arabera izendatzen diren pertsonak dira laguntzaileak, Elkarteari borondatezko dedikazio egonkorra edo lankidetzatza pertsonal desinteresatu eta iraunkorra ematen dizkiotelako.
- 3.-Bi kasuetan, 9. artikuluko 2., 3. eta 4. paragrafoetan ezarritakoaren arabera arautuko dira altak eta bajak.
- 4.-Izendatze-egintzan, bazkide babesle edo bazkide laguntzaile izendatu ahal izango zaie, edo, besterik gabe, babesle edo laguntzaile, Elkartearen masan sartu gabe. Ekarpeneren hedaduraren eta intentsitatearen arabera.
- 5.-Ez dituzte bazkide arrunten eskubideak eta betebeharrak izango, izendapena justifikatzen duen ekarpenari dagozkionak baizik. Horretarako, hitzarmen bat sinatu ahal izango da Elkartearen eta pertsona horien artean.

13. artikulua.-Eskubideak.

- 1.-Bazkide arruntek, pertsona fisikoek zein juridikoek, honako eskubide hauek dituzte:
 - a) Batzar Nagusietara deituak izateko, haietara joateko eta eztabaidetan parte hartzeko eskubidea, bai eta erabakiak hartzeko edo borondatea adierazteko botoa emateko eskubidea ere, berdintasun-baldintzetan; eta horretarako, bere ordezkariak beste kide batzuen esku utzi ahal izateko eskubidea.
 - b) Elkarteko gobernu-organoen bidez elkartearen jardueretan parte hartzeko eskubidea, organo horietarako kideak hautatzeko eta hautatua izateko aukera izanik, beti ere estatutu hauetan ezarritakoari jarraituz.
 - c) Elkartearen gobernu- eta ordezkari-organoen osarari buruz, elkartearen kontu-egoerari buruz eta elkartearen jarduerari buruz informazioa jasotzeko eskubidea.
 - d) Diziplinazko neurriak hartu aurretik entzunak izateko eskubidea, eta neurri horiek hartzeko arrazoiei buruzko informazioa izatekoa. Arrazoi horiek betebeharrak betetzean baino ezin izango dira oinarritu, eta, hala badagokio, zehapena ezartzen duen erabakia arrazoitu egin beharko da.
 - e) Elkartearen bazkide-liburuak, akta-liburuak eta kontu-liburuak eskuratzeko eskubidea, beti ere datu pertsonalak babesteko araudian zehaztutakoa aintzat hartuta.
 - f) Elkarteari buruzko Legearen edo estatutu hauen kontrako erabaki eta jardunak inpugnatzeko eskubidea, inpugnatutako erabakiaren edukia ezagutu duten edo ezagutzeko aukera izan duten egunetik berrogei egun naturaleko epean.
 - g) Nahi duenean baja emateko eskubidea. Horrek ez du eraginik izango bere garaian onartu baina bete gabe utzitako konpromisoetan.
 - h) Indarrean den legedian jasotako bazkideen fitxategian agertzeko.
 - i) Estatutuen eta, halakorik balego, Barneko erregimenaren araudiaren ale bana izateko eskubidea, eta zuzendaritza-organoen aurrean eskabideak eta kexuak aurkezteko.

2.-Gainerako bazkide-motek aurreko artikuluetan horietako bakoitzerako adierazitako eskubideak izango dituzte.

14. artikulua.-Betebeharrak.

1.-Bazkide arruntek, pertsona fisikoek zein juridikoek, honako betebeharrak dituzte:

- a) Zehaztutako kuota ordaintzea.
- b) Elkartearen helburuak lortzeko parte-hartze aktiboa eskaintzea.
- c) Estatutu hauek diotena eta elkarteko organoek behar bezala hartutako erabakiak betetzea.

2.-Gainerako bazkide-motek aurreko artikuluetan horietako bakoitzerako adierazitako betebeharrak izango dituzte.

15. artikulua.-Kuotak.

1.-Bazkide arrunten kuotak arau hauen arabera arautuko dira:

- a) Elkarteari aldizkako kuota arruntak ordainduko dizkiote, bai eta ezartzen diren ezohiko kuotak ere.
- b) Ohiko eta ezohiko kuotak ezartzea Batzar Nagusiari dagokio, baina ahalmen hori Gobernu Kontseiluari eskuordetu diezaioke, berariazko akordio bidez.
- c) Kuotak finkatzeko, kontuan hartuko dira bazkideen ekarpenen hedadura eta intentsitatea, bazkideen tamainaren eta antolaketaren ezaugarriak, eta elkarte honen ezaugarriekin eta jarduerekin zerikusia duen beste edozein inguruabar.

2.-Gainerako bazkide-motek ez dute kuotarik ordainduko, elkartearekin duten harreman espezifikotik eratorritako ondorio ekonomikoek kalterik egin gabe.

16. artikulua.-Zehapen-erregimena.

1.-Gobernu Kontseiluak bazkideak zigortu ahal izango ditu elkarteei buruzko legeria, estatutuak edo Batzar Nagusiaren, Gobernu Kontseiluaren edo sozietatearen beste organo batzuen erabakiak betetzen ez badira.

Zigorrek ondorengoak izango dira: 15 egunetik hilabetera arteko epean eskubideak galtzeko zigorretik hasi eta elkartetik behin betiko kanporatzera artekoa, hain zuzen ere, artikulua honetan esaten denarekin bat etorritik.

Zehazki, bi urtetan jarraian urteko kuotak ordaintzen ez badira, bazkidea behin betiko kanporatuko da elkartetik. Dena den, kuota horiek ez ordaindu arren bazkidea ez da kanporatuko, baldin eta Gobernu Kontseiluak erabakitzen badu ezohiko arrazoiak daudela ordainketa horiek ez egiteko.

2.- Bazkideren bat aurreko artikuluan aipatzen den egoeretakoren batean badago, lehendakariak aukera izango du idazkariari alde aurretik zenbait eginbide egiteko agintzeko, informazio egokia eskuratu ahal izateko. Horren ostean, lehendakariak jarduerak artxibatzeko, zigor-espedientearekin hasteko (3. atalean esaten denaren



ASOCIACIÓN DEL PAÍS VASCO PARA LA UNESCO
UNESCO SUSTATZEKO EUSKAL HERRIKO ELKARTEA

arabera) edo elkartetik kanporatzeko espedientea hasteko (4. atalean esaten denaren arabera) agindu ahal izango du.

3.-Zehapen-espedientea zehapen guztiei aplikatuko zaie, behin betiko kanporatzeko espedienteari izan ezik, eta honako arau hauek jarraituko dira:

a) Lehendakariak ikerketa bat abiaraztea erabaki ahal izango du, zehagarriak izan daitezkeen jokabideak argi daitezkeen. Idazkariak egingo ditu jarduketak, eta egoki diren neurriak hartzea proposatuko diote Gobernu Kontseiluari.

b) Zigorrek ezartzea Gobernu Kontseiluaren eskumena izango da, eta alde zuzenetik interesdunari entzun beharko zaio.

c) Erabaki horren aurka (beti arrazoitu egin behar da) errekursoa jarri ahal izango da Batzar Nagusiaren aurrean, 13-1-f) artikuluan aurreikusitako ekintzak gauzatzeari kalterik egin gabe.

4.-Kanporatzeko espedientea behin betiko kanporatzeko zehapenari aplikatuko zaio, eta honako arau hauek jarraituko dira:

a) Zer gertatu den egiaztatu ostean, idazkariak idazki bat bidaliko dio interesatuari, zer aurpegiratzen zaizkion azaltzeko, eta horren aurrean, interesatuak bere iritzia azaldu eta defendatzeko aukera izango du, bi asteko epean. Epe hori igarota, gaia Gobernu Kontseiluaren hurrengo bileran aztertu eta egoki irizitako erabakia hartuko da. Bilerarako kideen erdia gehi baten quoruma behar izango da erabakitzeko.

b) Elkartetik behin betiko kanporatzeko erabakia beti arrazoitu egin beharko da, eta interesatuari jakinarazi egin beharko zaio. Horrelakoetan, interesatuak auzitegietara jotzeko aukera izango du, eskubidea baitu, baldin eta erabaki hori legearen edo estatutuon aurkakoa dela uste baldin badu.

c) Behin betiko kanporatzeko erabakiak baja eragingo du elkartean, berehala eta besteko izapiderik egin behar izan gabe.

III. KAPITULUA **GOBERNU-ORGANOAK**

17. artikulua.-Zerrendaketa.

Elkarteko gobernu-organoak Batzar Nagusia eta Gobernu Kontseilua izango dira.

Lehenengo atala.-Batzar nagusia.

18. artikulua.-Ezaugarriak.

Batzar Nagusia da elkarteko organo gorena, eta bazkide arruntek osatuko dute.

19. artikulua.-Bilera:modalitateak.

1.-Batzar Nagusia urtean behin bilduko da, ohiko bilkuran, ekainaren 30a baino lehen.



ASOCIACIÓN DEL PAÍS VASCO PARA LA UNESCO
UNESCO SUSTATZEKO EUSKAL HERRIKO ELKARTEA

2.-Batzar Nagusiak ohiz kanpoko bilkurak ere izango ditu, Gobernu Kontseiluak edo bazkide arrunten heren batek hala eskatzen baldin badu.

20. artikulua.-Deialdia.

1.-Batzar Nagusia biltzeko deialdia, ohikoa nahiz ezohikoa, Gobernu Kontseiluak erabaki eta Gobernu Kontseiluko idazkariak egingo du, gutxienez bilera-eguna baino 2 aste lehenago.

2.-Batzar Nagusia balio osoz eratuko da edozein gai aztertzeko, aldez aurretik deialdirik egin beharrik gabe, betiere bazkide arrunt guztiak bertan edo ordezkatuta badaude, eta aho batez onartzen badute bilera egitea.

21. artikulua.-Bertaratzea.

1.-Gobernu Kontseiluko bileretara bertaratzeko eskubidea izango dute bazkide arrunt guztiek.

2.-Bazkideek, Batzar Nagusietara joateko, beste edozein bazkideri eman ahal izango diote beren ordezkaritza. Ordezkaritza hori idatziz emango da, eta idazkariaren esku egon beharko du bilera hasi aurretik.

3.-Ohorezko bazkideek, babesleek eta laguntzaileek ere joan ahal izango dute; hitzarekin baina botorik gabe. Era berean, Gobernu Kontseiluak edo lehendakariak izendatutako pertsonak joan ahal izango dute, hala nola elkarteko edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuetako zuzendariak, kudeatzaileak, aholkulariak, zerbitzu-emaileak edo langileak; hitza izango dute, baina botorik ez.

22. artikulua.-Funtzionamendua.

1.-Batzar Nagusia lehenengo deialdian eratu ahal izateko, kide guztien erdia gehi bat behar izango dira, eta bigarren deialdian ez da kontuan hartuko zenbat kide bertaratu diren.

2.-Batzar Nagusiaren bilera guztietan mahai bat eratuko da, lehendakariak eta idazkariak osatua. Lehendakariak bileran honako eginkizun hauek izango ditu: bilera hasi eta amaitzea, zuzendu eta moderatzea, esku-hartzeak eta eztabaidak antolatzea, bozketa-proposamenak egitea eta bilera garatzean planteatzen den edozein gai edo gorabehera ebaztea. Idazkariak bileraren akta idatziko du.

3.-Batzar Nagusia aurrez aurre, bideokonferentziaren edo bitarteko telematikoaren bidez ala formatu mistoan egingo da, bilerara deitzen duen organoak adierazitako moduan. Nolanahi ere, bideokonferentziak edo hautatzen den komunikazio-bitarteko telematikoak bermatuko du bertaratutakoak behar bezala identifikatzen direla, komunikazioa jarrai daitekeela, eztabaidetan parte hartzeko aukera dagoela eta botoa eman daitekeela. Bazkide bakoitzaren botoak balio bera izango du beti.

4.-Bazkide arruntek bileretan berdintasunez parte hartuko dute Batzar Nagusiaren bileretan, lehendakariaren eta idazkariaren eskumen eta ahalmenei kalterik egin gabe, beren eginkizunengatik eta bilerako mahaikide izateagatik.

23. artikulua.-Akordioak.

1.-Batzar Nagusiak gehiengo soilez hartuko ditu akordioak, eta, berdinketa gertatuz gero, bilerako lehendakariaren kalitateko botoak erabakiko du.

2.-Salbuespen gisa, ondasunekin zer egin edo besterentzea erabaki behar bada, edo estatutuetan aldaketak egin behar baldin badira, Batzar Nagusia osatzen duten kideen, bertaratutakoen edo ordezkarien, bi herenen aldeko botoa beharko da.

3.-Bazkide guztiek, disidentek eta bileran parte hartu ez dutenek barne, Batzar Nagusiaren akordioak bete beharko dituzte.

4.-Hartutako akordioen aurka bozkatu dutenek boto partikularra eman ahal izango dute, akordioaren datatik astebeteko epean, eta bileraren aktari erantsiko zaio.

24. artikulua.-Akta.

1.-Batzar Nagusiak bilera bat egiten duen bakoitzean idazkariak akta idatziko du. Akta horretan bilera noiz hasi eta amaitu den adieraziko da, laburki deskribatuko dira eztabaidak eta esku-hartzeak, eta onetsitako akordioen testua azalduko da, formulatutako boto partikularrekin batera.

2.-Aztergai den Batzar Nagusiaren bileran idazkariak onetsitako akordioen testua idatziko du, eta Gobernu Kontseiluaren bilera horretan bertan onesteko aztertuko du. Hala onetsitako akordioen testua 1. atalean aipatzen den aktaren zati izango da, eta bere horretan gehituko zaio aktari.

3.-1.ataleko akta Gobernu Kontseiluaren hurrengo bileran onetsiko da, akordioen testuei dagokien baliozkotasuna eta eraginkortasuna gorabehera, 2. atalean xedatutakoaren arabera aktari dagokion bileran onetsiak izan baitira.

4.-Idazkariari dagokio, lehendakariaren oniritziarekin, bidezko diren akordioen ziurtagiriak eta akta-liburuaren edukia ematea.

25. artikulua.-Ohiko Batzar Nagusiaren eskumenak eta ahalmenak.

Honako eskumen eta ahalmen hauek dagozkio Ohiko Batzar Nagusiari:

1.-Urteko kontuak aztertu eta onartzea (egoera-balantzea, emaitza-kontua eta jardueren memoria).

2.-Hurrengo urteko aurrekontua eta plan orokorra onartzea (Gobernu Kontseiluak egingo du).

3.-Gobernu Kontseiluko kideak izendatzea eta honako kargu hauek hautatzea: lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria, idazkariordea, diruzaina, diruzainordea eta kontseilukideak. Eta Gobernu Kontseiluko erabakiak berrestea edo ezeztatzea, estatutu hauetako 31. artikuluan aipatzen den kooptazio-ahalmenaren babesean organo horretako kideak hautatzeari buruzkoak.

4.-Elkarteen federazioak sortzeko edo halakoetan sartzeko erabakiak hartzea.

5.-Programen aurrekontu bereziak onartzea.

6.-Elkartearen misioa, ikuspegia eta balioak onartzea, eta egiten diren jarduerak haiekin bat datozela zaintzea.

7.-Epe luzerako estrategiak eta politikak onartzea.

8.-Bideragarritasun finantzarioa eta legea betetzen dela bermatzea.

9.-Bazkide berriak onartzea.

10.-Bazkideen urteko kuota onartzea, 15.artikuluaren arabera.

11.-Gobernu Kontseiluaren esku uztea kuota arruntak edo bereziak finkatzeko eskumena, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 16-3-h) artikulua babesean (Eusko Legebiltzarrarena).

12.-Elkartean genero-berdintasuna sustatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko ekintzak txertatuz bere plan eta politiketan.

13.-Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakiak hartzea, 16. artikulua arabera.

14.-Gobernu Kontseiluaren esku uztea Batzarraren eginkizunak betetzea errazten duten ahalmenak.

15.-Estatutu hauetan jasotako manuen interpretazioa eta horien hutsuneen estaldura onartzea, Elkarteei buruz indarrean dagoen legeria betez, elkartearen garapenean planteatzen diren gaiei dagokienez, Gobernu Kontseiluak proposatuta, interpretazio hori kontuan har dadin aurrerantzean, kasuan kasuko estatutuen zatiari egiten zaion aplikazio orotan.Eskumen edo ahalmen horretatik kanpo geratzen dira estatutuak aplikatzeko behar diren interpretazio hutsak, operadore juridikoei baitagozkie beren eskumen eta ahalmenak ballatzeko.

16.-Legeak edo estatutuek Batzar Nagusiari esleitzen dioten beste edozein eskumen edo ahalmen.

26. artikulua.-Ezohiko Batzar Orokorraren eskumenak eta ahalmenak.

Honako eskumen eta ahalmen hauek dagozkio Ezohiko Batzar Nagusiari:

- 1.-Estatutuak aldatzea.
- 2.-Elkartea desagitea.
- 3.-Ondasun higiezinekin zer egin erabaki edo besterentzea
- 4.-Ohiko Batzar Nagusiari edo beste organo batzuei ez dagozkienak.

Bigarren atala.-Gobernu Kontseilua.

27. artikulua.-Ezaugarriak.

Gobernu Kontseiluari dagozkio Elkartea ohiz zuzendu eta kudeatzea, Batzar Nagusiaren jarraibideen arabera eta haren ikuskaritzapean eta kontrolpean.

28. artikulua.-Osaera.

1.-Gobernu Kontseilua gutxienez 7 pertsona fisiko edo juridikok osatuko dute.Gobernu Kontseilua berritzen den bakoitzean, Batzar Nagusiak zehaztuko du Gobernu Kontseilua osatuko duten pertsonen edo kideen kopurua, adierazitako gutxienekoarekin.



ASOCIACIÓN DEL PAÍS VASCO PARA LA UNESCO
UNESCO SUSTATZEKO EUSKAL HERRIKO ELKARTEA

2.-Nolanahi ere, honako kargu hauek egongo dira Gobernu Kontseiluan:

-Lehendakari bat.

-Lehendakariorde bat.

-Idazkari bat.

-Idazkariorde bat.

-Diruzain bat.

-Diruzainorde bat.

-Kontseilukideak: Gobernu Kontseilua osatzen duten gainerako pertsona edo kideak.

3.-Gizonezkoen eta emakumezkoen banaketa ekitatiboa izatearen alde egingo da.

4.-Gobernu Kontseilua osatzen duten kide eta karguek doakoak izan behar dute, eta ez dute interesik izan behar ustiapenaren emaitza ekonomikoetan, ez beren kabuz, ez bitarteko baten bidez.

29. artikulua.-Hautaketa.

1.-Gobernu Kontseiluko kideak eta karguak Batzar Nagusiak aukeratuko ditu, gehiengo soilez, lau urterako.

2.-Kontseiluan gehienez 8 urtez jarraian egon ahal izango da karguan; hau da, 4 urteko 2 agintaldi jarraian.

3.-Lehendakari eta lehendakariorde karguen kasuan beste bi agintaldiz luza daiteke, 2. atalean adierazitakoez gain.

3.-Kargua uzten duten pertsonak berriro sartu ahal izango dira Gobernu Kontseiluan, eta kargu horietako edozein bete ahal izango dute, gutxienez 2 urte igaro ondoren kontseiluko kide izan gabe.

4.-Aipatutako kasuetatik kanpo, ez da inolako mugarik egongo Gobernu Kontseiluko kide izateko, ezta edozein kargu betetzeko ere.

30. artikulua.-Kargu-uztea.

Gobernu Kontseiluko kideek honako kasu hauetakoren bat gertatzen denean utziko dute kargua:

a) Agintaldiaren amaiera.

b) Batzar Nagusiaren erabakiz.

c) Norberaren borondatez.

d) Baldintzak ez betetzeagatik, hala nola bazkide-izaera galtzea edo ezgaitasunaren edo legezko eragozpenaren kausan sartzea.

e) Bazkide den pertsona juridikoa desegitea.

31. artikulua.-Kooptazioa.

1.- Gobernu Kontseiluko kide baten postua agintaldian zehar hutsik gelditzen bada, Gobernu Kontseiluak bazkide bat izendatu ahalko du betetzeko.

2.- Izendatzen denetik izango ditu ondoreak, baina hurrengo Batzar Nagusiaren bileran aztertuko da baietsi edo ezesteko.

3.- Ezetsizat joko da edozein arrazoiengatik Batzar Nagusiaren hurrengo bileran baiesten ez bada.

4.- Hala izendatzen diren pertsonak Gobernu Kontseiluko kideen eskubide eta betebeharrak berdinak izango dituzte eta kontseilukide izango dira.

5.- Gobernu Kontseiluko kide izateari uzteaz gain, Gobernu Kontseiluan karguren bat badu, honako arauak erreparatuko zaie:

a) Kooptazio-gaitasuna erabili ahalko da Gobernu Kontseiluko kidearen postua betetzeko; ez, ordea, pertsona horrek Gobernu Kontseiluan zuen kargua betetzeko.

b) Kooptazio-gaitasunaren babesean Gobernu Kontseiluko kide izendatu den pertsona kontseilukide izango da.

c) Gobernu Kontseiluko kideak hutsik utzi duen kargua dagokionak beteko du, estatutu hauek xedatutakoaren arabera.

6.- Kooptazio-gaitasunarekin bat izendatutako pertsonen kasuan, agintaldia Gobernu Kontseiluko kide ohia gelditzen zitzaion denboraldia betetzera mugatuko da.

32. artikulua.-Bilera.

1.-Gobernu Kontseiluak bilera hiru hilean behin egingo du gutxienez.

2.- Gobernu Kontseilua lehendakariak bere ekimenez hala erabakitzen duenean edo gutxienez 3 kontseilukidek eskatzen dutenean bilduko da.

33. artikulua.-Deialdia.

1.- Gobernu Kontseiluko deialdiak lehendakariak erabaki eta idazkariak egingo ditu bilera baino gutxienez astebete lehenago.

2.- Gobernu Kontseilua edozein aztergai aztertzeko balio osoz osatuta geldituko da, aurretiaz deialdirik egin gabe, baldin eta kontseilukide guztiak eta lehendakari, idazkari eta diruzainaren funtzioak betetzen dituzten hiru karguak badaude. Gainera, bertaratuak aho batez onetsi beharko dute bilera egitea.

34. artikulua.- Bertaratzea.

1.-Gobernu Kontseiluko bileretara bertaratzeko eskubidea izango dute hura osatzen duten kide guztiek.

2.- Gobernu Kontseiluko kideek ordezkaritza beste organoko kide bati emateko aukera izango dute, bigarren horrek bileran parte har dezan eta organoko kidearen eta kontseilukide karguaren beraren eskubideak eta betebeharrak erabil ditzan. Ordezkaritzak ordezkaturako kideak dituen gainerako karguei ez die eragingo, eta estatutuekin bat etorritik ordezkaturako zaio. Ordezkaritza idatziz emango da, eta idazkariaren esku egon da bilera hasi baino lehen.

3.- Halaber, Gobernu Kontseiluak edo lehendakariak zehazten dituzten pertsonak (hala nola zuzendariak, kudeatzaileak, aholkulariak, zerbitzu-emaileak edo Elkarteko ala beste erakunde publiko edo pribatu batzuetako langileak) bertaratu ahal izango dira. Hitza izango dute, baina botorik ez.

35. artikulua.-Funtzionamendua.

1.- Gobernu Kontseilua balioz eratuko da bileran gutxienez lehendakaria, idazkaria eta Gobernu Kontseiluko beste bi pertsona badaude.

2.- Lehendakariak bileran honako eginkizun hauek izango ditu: bilera hasi eta amaitzea, zuzendu eta moderatzea, esku-hartzeak eta eztabaidak antolatzea, bozketa-proposamenak egitea eta bilera garatzean planteatzen den edozein gai edo gorabehera ebaztea. Idazkariak bileraren akta idatziko du.

3.- Gobernu Kontseilua aurrez aurre, bideokonferentziaren edo bitarteko telematikoen bidez ala formatu mistoan egingo da, bilerara deitzen duen organoak adierazitako moduan. Nolanahi ere, bideokonferentziak edo hautatzen den komunikazio-bitarteko telematikoak bermatuko du bertaratutakoak behar bezala identifikatzen direla, komunikazioa jarrai daitekeela, eztabaidetan parte hartzeko aukera dagoela eta botoa eman daitekeela. Gobernu Kontseiluko kide bakoitzaren botoak balio bera izango du beti.

4.- Gobernu Kontseiluko kideek bileretan berdintasunez parte hartuko dute, aurreko paragrafoetan aipatu diren funtzioak direla bide, lehendakariak eta idazkariak dituzten eskumenak eta ahalmenak gorabehera.

36. artikulua.-Akordioak.

1.- Akordioak gehiengo soilez hartuko dira, legeak edo estatutuek gehiengo kalifikatua eskatzen dutenean izan ezik. Berdinketa gertatuz gero, lehendakariak kalitateko botoa izango du.

2.- Gobernu Kontseiluko kide guztiek, disidenteek eta bileran parte hartu ez dutenek barne, bete beharko dituzte Gobernu Kontseiluaren akordioak. Era berean, bazkide guztien eskakizuna da Gobernu Kontseiluaren akordio horiek betetzea.

3.- Hartutako akordioen aurka bozkatu dutenek boto partikularra eman ahal izango dute, akordioaren datatik astebeteko epean, eta bileraren aktari erantsiko zaio.

37. artikulua.-Akta.

1.- Gobernu Kontseiluak bilera bat egiten duen bakoitzean idazkariak akta idatziko du. Akta horretan bilera noiz hasi eta amaitu den adieraziko da, laburki deskribatuko dira eztabaidak eta esku-hartzeak, eta onetsitako akordioen testua azalduko da, formulatutako boto partikularrekin batera.

2.- Aztergai den Gobernu Kontseiluaren bileran idazkariak onetsitako akordioen testua idatziko du, eta Gobernu Kontseiluaren bilera horretan bertan onesteko aztertuko du. Hala onetsitako akordioen testua 1. atalean aipatzen den aktaren zati izango da, eta bere horretan gehituko zaio aktari.

3.- 1. ataleko akta Gobernu Kontseiluaren hurrengo bileran onetsiko da, akordioen testuei dagokien baliozkotasuna eta eraginkortasuna gorabehera, 2. atalean xedatutakoaren arabera aktari dagokion bileran onetsiak izan baitira.

4.- Idazkariari dagokio, lehendakariaren oniritziarekin, bidezko diren akordioen ziurtagiriak eta akta-liburuaren edukia ematea.

38. artikulua.- Eskumenak eta ahalmenak.

Gobernu Kontseiluak honako eskumen eta ahalmen hauek ditu:

1.- Elkaratearen gobernu, administrazio eta ordezkariaren gaineko eskumen eta ahalmen guztiak. Adibide modura, Gobernu Kontseiluaren eskumenak eta ahalmenak hurrengo atalean adierazten dira.

2.- Aurrekontuak eta kontuak prestatzea Batzar Nagusiak onesteko. Elkartean dituen helburuak kontuan hartuta, funts eskuragarriak banatu eta aplikatzea.

3.-Ildo estrategikoak formulatzea, eta beharrezko helburu eta baliabideak onartzea.

4.-Elkaratearen gestioaren emaitzak eta helburuak lortzeko programatutako ekintzen jarraipena egitea aldian-aldian.

5.- Kontratu mota guztiak egitea eta edozein ondasun besterendu eta kargatzeko ekintza-mota guztiak gauzatzea: errentak, emaitzak, dibidenduak, korrituak edo utilitateak kobratzea eta ordaintzea.

6.-Duten garrantziagatik edo zenbatekoagatik elkaratearen arriskuei eragin diezaieketen konpromisoak edo kontratuak onartzea.

7.-Elkaratearen ondasunen aldeko administrazio-lanak, zaintza-lanak, eta defentsa-lanak egitea, behar edo komeni bezainbeste.

8.- Zuzendaritzako kideak izendatzea eta kargutik kentzea, eta urtero beren eginkizunak bete dituzten ebaluatzea.

9.-Elkarteari zerbitzu emango dion profesional-taldearen kontratazioak eta ordainsaria onartzea.

10.- Baliabide finantzarioak lortzeko eta komunikazioko politiketan parte hartzea.

11.-Bazkideak lortzeko eta sustapeneko politiketan parte hartzea.



ASOCIACIÓN DEL PAÍS VASCO PARA LA UNESCO
UNESCO SUSTATZEKO EUSKAL HERRIKO ELKARTEA

12.- Ohorezko bazkideak, babesleak eta laguntzaileak izendatzea.

13.- Estatutuekin bat etorritz, bazkideei zehapenak jartzea.

14.- Edozein motatako (administratiboa, jurisdikzionala, parlamentukoa, nazioarteko erakundeetakoa edo beste edozein) eskaerak formulatu, ekintzak gauzatu edo errekursoak jartzeko erabakitzea edozein eremutan (estatua, erkidegoa, forua, tokia, Europa, nazioartea edo bestelakoa). Profesional juridikoak (abokatua, prokuradorea) izendatzea. Eta auzietarako botereak ematea (orokorrak, bereziak, partikularrak edo espezifikoak). Premiazko kasuetan lehendakariaren eskumena gorabehera.

15.- Aurreko zenbakian adierazitakoaz bestelako ahalordetzeak ematea onartzea.

16.-Gobernu Kontseiluaren eskumenak bete ahal izateko edo Elkartearen interesak ordezkatu ahal izateko erantzukizun espezifikoak eskuordetzea.

17.-Elkarteak bere proiektuetan eta barne-funtzionamenduan genero-ekitatean oinarrituta eta genero-ekitatearen alde diharduela zaintzea.

18.- Gobernu Kontseiluaren eta hirugarren atalean aipatutako gainerako organoen artean, bai eta horien artean ere, eskumen- eta ahalmen-gatazkak sortzen badira, haiek ebaztea.

19.- Elkartearen egunerokoa planteatuz gero, Batzar Nagusiari Estatutuetako aginduak interpretatu eta hutsak bete daitezzen proposatzea, hark onesteko. Horretarako, elkarteei buruzko indarreko legediari erreparatuko zaio. Gobernu Kontseiluak proposatuko du, Estatutuen zatiari dagokionean aurreratzean interpretazio hori kontuan hartzeko. Eskumen edo ahalmen horretatik kanpo geldituko dira Estatutuak aplikatzeko interpretazio hutsak, operadore juridikoen eskumenak eta ahalmenak betez, haiei badagozkie.

20.- Legeak edo Estatutuek ala Batzar Nagusiak Gobernu Kontseiluari ematen dion edozein eskumen edo ahalmen.

Hirugarren atala.- Gobernu Kontseiluko eta beste organo batzuetako karguak.

39. artikulua.- Eskuordeko Batzordea.

Gobernu Kontseiluak Eskuordeko Batzordea sortzea erabaki ahalko du, Gobernu Kontseiluari berari lotuta. Horrez gain, betiere Estatutuek xedatzen dutena kontuan hartuta, arauketa zehaztu hala izango du honako gaien gainean: osaera, eskumenak eta ahalmenak, mugak, Gobernu Kontseiluarekin harremana eta beste edozein alderdi.

40. artikulua.- Lehendakaria eta Lehendakariordea.

1.- Lehendakariak berariaz honako eskumen eta ahalmen hauek izango ditu bere karguaren arabera:

a) Gobernuko Kontseiluko lehendakari izateaz gain, Elkarteko eta Batzar Nagusiko lehendakari izango da.

b) Gobernu Kontseiluaren eta Batzar Nagusiaren bileretarako deialdia egingo du, buru izan eta noiz amaitu adierazteaz gain. Aztergaien zerrenda definituko du eta eztabaidetan moderatzaile-lanetan arituko da, bozkatzeko proposamenak egingo ditu eta berdinketaren kasutan, kalitateko botoaren bidez erabakiko du.

c) Kontseiluaren eta Batzar Nagusiaren bileratan informazio egokia eskura dagoela ziurtatuko du.

d) Elkartearen eta Gobernu Kontseiluaren funtzionamendua eraginkorra izan dadin sustatuko du.

e) Akordioen aktak eta ziurtagiriak ontzat emango ditu.

f) Gobernu Kontseiluaren, Batzar Nagusiaren eta sozietateko beste edozein organoren akordioak behar bezala gauzatzen direla zainduko du.

g) Gobernu Kontseiluaz gain, Elkarte eta Batzar Nagusia ordezkatuko ditu.

h) Gai berezietarako batzorde egokiak sortuko ditu.

i) Premiaz sor daitezkeen gaiak ebatziko ditu, eta horien berri emango dio Gobernu Kontseiluari honek egiten duen lehenengo bileran. Premiazko kasuetan, edozein motatako (administratiboa, jurisdikzionala, parlamentukoa, nazioarteko erakundeetako edo beste edozein) eskaerak formulatu, ekintzak gauzatu edo errekurtsioak jartzeko erabakiak hartuko ditu edozein eremutan (estatua, erkidegoa, forua, tokia, Europa, nazioartea edo bestelakoa). Profesional juridikoak (abokatua, prokuradorea) izendatuko ditu. Eta auzietarako botereak ematea (orokorrak, bereziak, partikularrak edo espezifikoak). Atal honen babesean hartutako erabakiek eraginkortasun osoa izango dute, baina lehendakariak kontu emango dizkio Gobernu Batzordeari horrek egiten duen lehenengo bileran.

j) Elkartean genero-ekitatearen ordezkari bidezkoa eta zuzena dela zainduko du.

k) Legeak edo Estatutuek lehendakariari ematen dizkieten edozein eskumen edo ahalmen.

l) Beste edozein, Batzar Nagusiari, Gobernu Kontseiluari edo sozietateko beste edozein organori esleitu ez bazaizkio.

2.- Lehendakariordeari honako eskumen eta ahalmen hauek dagozkio:

a) Lehendakaria ordezkatuko du bere eskumen eta ahalmenetan, hura gaixorik dagoenean, agertzen ez denean, kargua hutsik dagoenean edo legezko eragozpenen bat duenean. Beraz, eskumen edo ahalmen bat aztergai egonda, legeak, Estatutuek edo edozein testuk lehendakaria aipatzen duenean, arestian adierazitako ustezkoren baten barruan lehendakariordearentzat egindako aipamena dela ulertuko da.

b) Lehendakariari lagunduko dio haren eskumenen eta ahalmenen eremuan, betiere eskatzen zaion baldintzapean.

c) Lehendakariak eskuordetutakoak.

3.- Gainera, lehendakariak eta lehendakariordeak kontseilukideen eskumenak eta ahalmenak izango dituzte.



ASOCIACIÓN DEL PAÍS VASCO PARA LA UNESCO
UNESCO SUSTATZEKO EUSKAL HERRIKO ELKARTEA

41. artikulua.- Idazkaria eta Idazkariordea.

1.- Idazkariak berriaz honako eskumen eta ahalmen hauek izango ditu bere karguaren arabera:

- a) Alta-eskaerak jaso eta izapidetuko ditu, bazkideen fitxategia eta erregistro-liburua eramango ditu eta beste edozein eskaera jaso eta izapidetuko du, betiere beste organo baten esku ez badago.
- b) Gobernu Kontseiluaren, Batzar Nagusiaren eta idazkari den sozietateko gainerako organoen aktak idatziko ditu. Gobernu Kontseiluaren, Batzar Nagusiaren eta idazkari den sozietateko gainerako organoen aktak eta akta-liburuak zainduko ditu.
- c) Lehendakariak ontzat emanda, akten eta akta-liburuen edukia ziurtatuko du. Gauza bera egingo du sozietatearen beste agiri eta fitxategi batzuei dagokienez.
- d) Elkarteko dokumentazioa, fitxategiak, ondasunak eta eskubideak zainduko ditu.
- e) Elkartearen Erregistroari edo beste organo ala agintaritza eskudun bati egin behar zaizkion nahitaezko jakinarazpenak eta dokumentazioa egingo ditu honako gai hauetan: Gobernu Kontseiluko kideak eta karguak izendatzea, sozietatearen egoitza aldatzea edo legez bidezkoa den beste edozein alderdi.
- f) Elkartearen Erregistroari eta sozietatearen dokumentazioari dagokionez, elkartei buruzko legedia betetzen dela zainduko du.
- g) Aurreko letretako antzekoak, Batzar Nagusiari, Gobernu Kontseiluari edo sozietateko beste edozein organori esleitu ez bazaizkio.
- h) Legeak edo Estatutuek idazkariari ematen dioten beste edozein eskumen edo ahalmen.

2.- Idazkariaren eskumen eta ahalmen guztiak lehendakariak ikuskatuko ditu, aplikatu behar den legezotasuna betetzen dela bermatzeko.

3.- Idazkariordeari honako eskumen eta ahalmen hauek dagozkie:

- a) Idazkaria ordezkatu du bere eskumen eta ahalmenetan, hura gaixorik dagoenean, agertzen ez denean, kargua hutsik dagoenean edo legezko eragozpenen bat duenean. Beraz, eskumen edo ahalmen bat aztergai egonda, legeak, Estatutuek edo edozein testuk idazkaria aipatzen duenean, arestian adierazitako ustezkoren baten barruan idazkariordearentzat egindako aipamena dela ulertuko da.
- b) Idazkariari lagunduko dio haren eskumenen eta ahalmenen eremuan, betiere eskatzen zaion baldintzapean.
- c) Idazkariak eskuordetzen dizkionak.

4.- Gainera, idazkariak eta idazkariordeak kontseilukideen eskumenak eta ahalmenak izango dituzte.

42. artikulua.- Diruzaina eta Diruzainordea.

1.- Diruzainak berriaz honako eskumen eta ahalmen hauek izango ditu bere karguaren arabera:

- a) Baliabide ekonomikoak zainduko ditu.
- b) Kontabilitate-liburuak eramango ditu.
- c) Izandako diru-sarrerak eta egindako ordainketak aditzera emango ditu.
- d) Diru-sareren eta gastuen urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuak egingo ditu, gero, Gobernu Kontseiluari aurkeztu eta horrek, aldi berean, Batzar Nagusiari helarazteko, onar ditzan.
- e) Ohiko eta ezohiko kuoten ordainagiriak egingo ditu.
- f) Sozietatearen ondasunei buruzko inbentarioa eramango du.
- g) Aurreko letretako antzekoak, Batzar Nagusiari, Gobernu Kontseiluari edo sozietateko beste edozein organori esleitu ez bazaizkio.
- h) Legeak edo Estatutuek diruzainari ematen dioten beste edozein eskumen edo ahalmen.

2.- Diruzainaren eskumen eta ahalmen guztiak lehendakariak ikuskatuko ditu, aplikatu behar den legezko tasuna betetzen dela bermatzeko.

3.- Diruzainordeari honako eskumen eta ahalmen hauek dagozkie:

- a) Diruzaina ordezkatu du bere eskumen eta ahalmenetan, hura gaixorik dagoenean, agertzen ez denean, kargua hutsik dagoenean edo legezko eragozpenen bat duenean. Beraz, eskumen edo ahalmen bat aztergai egonda, legeak, Estatutuek edo edozein testuk diruzaina aipatzen duenean, arestian adierazitako uestzkoren baten barruan diruzainordearentzat egindako aipamena dela ulertuko da.
- b) Diruzainari lagunduko dio haren eskumenen eta ahalmenen eremuan, betiere eskatzen zaion baldintzapean.
- c) Diruzainak eskuordetutakoak.

4.- Gainera, diruzainak eta diruzainordeak kontseilukideen eskumenak eta ahalmenak izango dituzte.

43. artikulua.- Kontseilukideak.

1.- Kontseilukideei dagozkie Gobernu Kontseiluko kide izateagatik atxikitako eskumenak eta ahalmenak eta, bereziki, honako hauek:

- a) Bileretara bertaratuko dira, haietan parte hartuko dute eta akordioak hartzeko botoa emango dute, hartutako akordioei dagokienez, boto partikularra adierazteaz gain.
- b) Elkarteari lotutako edozein gaitan, lehendakariaren bidez informazioa eskatu eta lortu ahalko dute.
- c) Legeak edo Estatutuek emandako edozein eskumen izango dute, Gobernu Kontseiluko kide izateagatik hala esleituta badituzte.

2.- Halaber, kontseilukideei honako eskumen hauek dagozkie:

- a) Gaixotasuna, ez-egotea, hutsa edo legezko eragozpena direla eta, berariaz ematen zaizkien eskumen eta ahalmenetarako Gobernu Kontseiluko karguak ordeztuko dituzte, Estatutuek ordeztuko kargurik aipatzen ez dutenean, betiere Gobernu Kontseiluak edo lehendakariak hala erabakitzen badute.
- b) Gobernu Kontseiluari, lehendakariari eta gainerako karguei lagunduko diete eskatzen zaien moduan.
- c) Gobernu Kontseiluak, lehendakariak eta gainerako karguek eskuordetutakoak; azken kasu honetan lehendakariak onetsi beharko ditu.
- d) Elkartearen ekintzaren berezko eremua edo arloa etengabe kudeatzeko berariazkoak, Gobernu Kontseilua arloka egituratuta dagoelako edo kontseilukide bati ala batzuei esleitu zaizkielako.

44. artikulua.-Zuzendaritza.

- 1.- Zuzendaritza hierarkian Gobernu Kontseiluaren mende dago, eta lehendakariaren ikuskaritzapean Elkarteak kudeatuko du.
- 2.- Gobernu Kontseiluak Zuzendaritza izendatu eta zeregin horietatik kentzeko eskumena du.
- 3.- Zuzendaritzak honako eskumen eta ahalmen hauek ditu:
 - a) Plan estrategikoa eta urteko plana egitea, eta haiek lantzean buru izatea, ildo estrategikoak garatzeko.
 - b) Aldian-aldian Gobernu Kontseiluari helburuak lortzeko programatutako ekintzen eta emaitzen berri ematea.
 - c) Diruzainaren laguntzaz urteko kontuak prestatzea.
 - d) Jardueretan esku hartzen duen talde profesional guztiak, bai eta Erakundeko langileak ere, ikuskatu, koordinatu, motibatu eta ebaluatzea.
 - e) Erakundeen aurrean eta nazioartean elkartearen ordezkariak profesionala betetzea.
 - f) Lana garatzeko orduan lan-plana zereginak eta lan-kargak banatzean genero-berdintasuna errespetatzea eta jardueretan parte hartzen duen talde profesionalari eta Elkarteko langileei haien bizitza eta lan bizitza kontziliatzeko erraztasunak ematea.
 - g) Eskumenak eta ahalmenak garatzeko Elkarteari eskatzen duen arduraldia ematea.
 - h) Elkarteko jarduerak zuzentzea.
 - i) Batzar Nagusiaren eta Gobernu Kontseiluaren bileratan parte hartzea Estatutuek ezartzen duten baldintzetan.
 - h) Legeak edo Estatutuek Zuzendaritzari ematen dioten beste edozein eskumen edo ahalmen.

IV. KAPITULUA

SOZIE TATE-ONDAREA ETA EKONOMIA-ARAUBIDEA

45. artikulua.-Ondare garbia.

Ondare garbia, bere funts propioez osatua, 67.866,78€-koa da, 2021eko abenduaren 31an onartutako azken balantzearen arabera.

46. artikulua.-Ondarea eta baliabide ekonomikoak.

Elkartearen ondarea, ondasun eta baliabide ekonomiko hauek osatzen dute:

- a) Ondasun higigarriek eta higiezinek, Estatutuekin bat etorritik, Zuzenbidean onetsitako edozein bitarteko erabiliz erosi ostean, betiere Gobernu Kontseiluak legez onestea erabakitzen badu.
- b) Ohiko eta ezohiko kuotek.
- c) Bere balore-zorroak ematen duena.
- d) Dohaintza eta diru-laguntzak –halakorik jasotzen badu–.
- e) Ordenamendu juridikoak eskuratzeko bidea ematen dion beste edozein ondasun edo eskubide.
- f) Bazkideek helburu horretarako egindako ekarpenak.
- g) Zerbitzu eta argitalpenek ematen dizkioten sarrerak –halakorik badu–.

47. artikulua.-Elkarte- eta ekonomia-ekitaldia.

Elkarte- eta ekonomia-ekitaldia urtebetekoa izango da, eta abenduaren 31n itxiko da urtero.

48. artikulua.- Ondasunen eta baliabide ekonomikoen jomuga.

Elkarteko ondasunak eta baliabide ekonomikoak sorrerako helburuak betetzeko baino ez dira erabiliko, eta ez dira inolaz ere bazkideen artean banatuko, ez eta irabazi-asmoa duen inongo pertsona fisiko edo juridikori lagako ere.

49. artikulua.-Aurrekontua eta kontuak.

1.-Urtero-urtero, hurrengo ekitaldirako sarreren eta gastuen aurrekontua egin beharko da. Sarreren artean, etekin, kuota, diru-laguntza guztiak eta elkartearen ondasunek ustez ematekoak diren beste edozein sarrera hartu beharko da kontuan. Eta gastuen artean, berriz, ustez ekitaldian zehar egin beharrekoak hartuko dira kontuan.

Lan-programakako aurrekontu berezirik ere aurkez daiteke. Programak irauten duen bitartean, baliteke aurrekontuan aldaketa batzuk egin behar izatea, bete beharreko premia eta beharrei erantzutearren. Aldaketa horiek egiteko aukera hortxe dago.

2.-Eta ekitaldi bakoitzaren amaieran, urteko kontuak egingo dira –egoera-balantzea, emaitzen kontua eta memoria dituen–, eta Batzar Nagusian aurkeztu beharko da, onar dezan. Ondoren, Elkartearen Erregistro Orokorrean aurkeztuko da, urtero, ekainaren 30a baino lehen.

V. KAPITULUA ELKARTEA DESEGITEA ETA SOZIJETATE-ONDAREA APLIKATZEA

50. artikulua.-Elkartea desegiteko arrazoiak.

Honela desegin daiteke elkartearen:

- a) Bazkideek hala nahi dutelako. Halakoetan, Batzar Nagusia egin beharko da berariaz, eta bertarutzen direnen gehiengo osoak onartu beharko du.
- b) Kode zibileko 39. artikuluan zehazturik dauden arrazoiengatik.
- c) Auzitegiek hala erabakita.
- d) Beste elkarte batek xurgatuta edo beste elkarte batzuekin bat eginda.
- e) Legez ezartzen den gutxieneko elkartekide kopurua ez izateagatik.

51. artikulua.- Likidazio-prozesua.

Elkartearen desegiten bada, erabaki hori hartzen duen Batzar Nagusiak Likidazio Batzordea izendatuko du, eta hirugarrenetik eskakizunak bete ondoren, sozietateak soberan duen ondarea, hala balego, beste gizarte-elkarte edo -entitate bati entregatuko dio, betiere elkarte edo erakunde hori zerga-administrazio eskudunak hala aitortu badu.

VI. KAPITULUA ESTATUTUEN ALDAKETA

52. artikulua.- Aldatzeko ekimena eta proiektua.

1.- Estatutuak aldatzeko prozedurak dira Gobernu Kontseiluak berak bere ekimenez bultzatzea edo bazkide arrunten herenak eskatu ostean Gobernu Kontseiluak hala erabakitzea.

2.- Nolanahi ere, Gobernu Kontseiluak Ponentzia bat izendatuko du hiru bazkiderekin, aldaketa-proiektua idatz dezan. Xede horrez, Gobernu Kontseiluak gidalerroak emango dizkio eta proiektua bukatuta egoteko epea zehaztuko du.

53. artikulua.- Gobernu Kontseiluak izapidetzea.

Adierazitako epearen barruan aldaketa-proiektua egina dagoenean, lehendakariak lehen Gobernu Kontseiluko aztergaien zerrendan sartuko du onesteko edo, hala badagokio, Ponentziari itzultzeko, azter dezan.

54. artikulua.- Batzar Nagusiak onestea.

1.- Gobernu Kontseiluak onesten badu, hurrengo Ezohiko Batzar Nagusiaren aztergaien zerrendan sartzea edo berariaz deialdia egitea erabakiko du.

2.- Batzar Nagusirako deialdiari Estatutuak aldatzeko proiektua gehituko zaio, Gobernu Kontseiluak onetsi ostean. Helburua da bazkideek idazkariari egokitzat jotzen dituzten zuzenketak helaraztea. Nolanahi ere, horien berri emango da Batzar Nagusian, baldin eta idazkariak bilkura egin baino astebate lehenago eskura baditu.

3.- Zuzenketak banaka edo taldean egin ahal izango dira betiere idatziz eta testuarekiko beste aukera bat izango du, ezabatu nahi denean izan ezik.



IDAZKARIA



LEHENDAKARIA